

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Bilbao Bizkaia Museoak SM (Sozietate Mugatua)
2. Sektorea:	Kultura eta museistikoa
3. Langile Kopurua:	Guztira 17 11 Emakume eta 6 gizon.
4. Webgunea:	https://www.bbmuseoak.eus/eu
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusia, bezero motak...):	<p>Bilbao Bizkaia Museoak erakundea, Bilboko Euskal Museoaren, Bilboko Berreginen Museoaren Mariaren Bihotza plazako aztarnategiaren kudeaketaz arduratzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Museoak, gidaritzat du bere bilduman agertzen dira objektuen kontserbazioa eta hedapena. Eduki museistikoaz aparte, euskal kulturarekin erlazioa duten ekintza eta ekitaldi desberdinak ere egiten dira. ▪ Bilboko Artelan bereginen Museoa. Eduki museistikoaz aparte, mustiaren edukiarekin erlazioa duten ekintza, kurtso eta ekitaldi desberdinak ere egiten dira. Bilduma oso didaktikoa da ▪ Mariaren Bihotza plazako Aztarnategia Euskadiko hiri aztarnategia, San Frantzizkoko komentu zaharra eta Don Alfonso Printzearen kuartela hartzen ditu.

HARREMANETARAKO DATUAK

Solaskidearen izen-abizenak	Mikel Iturriagaetxebarria Camino
Helbide eelektronikoa	mikel.iturriagaetxebarria@bbmuseoak.eus
Telefonoa	944158333

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<p>1. Praktika onaren titulua:</p>	<p>“ Hitz bat, esaldi bat” “ Hitz bat, hamaika esaldi” “ Hitz bat, esaldiak erruz” “ Hitz bat, esaldi uzta oparoa”</p>
<p>2. Praktika onaren azalpena:</p> <p><i>Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</i></p>	<p>Lan arloko egunerokotasunean eta modu erakargarri batean, euskararekin harremana izateko ekimena da. Gehien bat, euskaraz lan egiten ez dutenei, edo euskaraz hitz egiteko ohitura ez dutenei zuzenduta dago. Ekintza honen helburua, langileek euskararekiko duten harremana areagotzea da.</p> <p>Zortzi hilabetez, goizero, lankide guztiei korreo elektronikoko bat bidali zaie. Bertan hitz bat agertu izan da. Hitzarekin batera bere esanahi desberdinak aipatu dira bai eta, eta hitz hori erabiliz esaldi bat aipatu izan da, beti ere, adibide modura. Ekintzaren helburua langile bakoitzak bere euskarazko esaldia sortzea izan da.</p> <p>8 hilabeetetan zehar aurrera eraman den ekintza honen emaitzak honakoak izan dira:</p> <p>143 hitz bidalita, 1285 esaldi sortuta, %42ko batezbesteko partaidetza orokorra lortuta.</p> <p>Ariketaren inguruko ebaluazio inkesta bat pasatu ondoren erantzun zuten langilegoaren %89ak erakundearen euskara sustatzeko tresna egokia zela helarazi zuen, beraz, ariketa dinamikoagoa egiteko asmoz, beste maiztasun batekin egitea erabaki da, bai eta erantzunen edukiarri ere beste zentzu bat ematea erakargarriagoa izan daitekeen entitateko langilegoarentzat. Erantzunen kasuan, eta ekintza dinamikoagoa izateko helburuarekin, esaldiak izan beharrean, beste motatako erantzunak izan daitezke (euskarazko podcast, bertsoa, artikulua, bideoa...).</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK ,GRAFIKAK...

Bidalitako hitz baten adibidea:

Egun on guztioi....

Hona hemen telebistako serie gisan, bigarren denboraldiko lehen hitz eta esaldia.

BARRA BARRA

Esanahia

❖ **Ugari, ugaritasunez.**

Iturria : Euskaltzaindia hiztegia

❖ **En abundancia, abundantemente, copiosamente.**

Iturria: Elhuyar hiztegia

Sinonimoak:

❖ Ausarki, ausarkian, bar-bar, bolo-bolo, erruz, franko, gizenki, gogotik, jori, lodi, nar, naroki, oparo, ugari, plei plei...

Esaldia

“ Ariketa hau prestatzen ari naizen bitartean, leihotik begira eta euria, barra-barra ari du.”

“Barra-barra” hitzarekin jaso ziren erantzunak, honako hauek izan ziren:

- Gaurko udazkeneko eguzkiak urrunegi gogoratzen digu ostiralean barra-barra zan euria
- Egun on danoi, udazkenagaz batera lana barra barra dekoqu!!!
- Herrian barra-barra zabaldu zen ezkontzeko zirela.
- Ematen duzun guztia, bueltan izango duzu barra barra
- Pasaden azteazkenean eta ostegunean Bilbon euria barra barra egin zuen.
- Dirua barra-barra daukie batzuk
- Azken urteotan turista barra-barra dator Bilbora.
- Aspaldion turistak gure ingurura barra barra zeto zak,zetozan = (jatozak,jatozan).
- Ozen eta barra-barra hitz egiten du.